

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Baxili Txintxurreta Goenaga

*Oñati, Gipuzkoa
(1922-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Lezesarri auzoko Goienetxe baserrian jaio zen 1922an. 9 anai-arreba ziren, baina lehengusu bat ere eurekin batera hazi zen, ama barik geratu zelako. Lehenbizi Plazako eskolan ibili zen eta geroago Berezaoko eskolan, hura egin zutenean, harik eta gerra hasi zen arte. Gerra ostean albaitariaren eskolan ibili zen, baina ez zuen denbora asko egin. Agustin Kortabarriarekin ezkondu zen eta 4 seme-alaba izan zituzten. Elkarrizketan senarrak ere hitz egiten du tarteka.

Zintak

ONA-082

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-03-09
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ONA-083

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-03-09
- **Iraupena:** 29 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. 9 urterekin Donostiara

- **Erref:** ONA-082/002
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

9 anai-arrebaren artean, zortzigarrena izan zen Basili eta berak eman zion jarraipena Goienetxe baserriari. 9 urterekin, Donostiara joan zen bisitan eta bertara bizitzera joateko eskatu zion amari. Donostiako Amara, garai haietan, ihiz beteta zegoela dio. Igeldora funikularrean igo zela ere gogoan du.

2. Lehenagoko trenbideak

- **Erref:** ONA-082/003
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Brinkolaraino autobusez joan eta handik trenez joaten ziren orduan Donostiara. Oraindik ez zegoen Zumarragako geltokia, ezta autobus zuzenik Donostiara ere. Trenez Oñatitik Maltzagara eta handik Donostia edo Bilbora joatea bazegoen. Basili Bilbora, medikuarengana, trenez joaten zen. Orduan trena Eibarko herriaren gaintxotik pasatzen zen.

3. Otsailaren 29an jaioa

- **Erref:** ONA-082/004
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

1922ko otsailaren 29an jaio zen Basili Txintxurreta Goenaga. Martxoaren batean jaioetakoa dela esan izan du beti, baina pasaporteaz atera zuenean jakin zuen erregistroan otsailak 29an jaioa zela jartzen zuela.

4. Semea eta besoetakoa elkarrekin hazi zituen amak

- **Erref:** ONA-082/005
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:09:10. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lehen batxilergoa nahikoa zen Udaleko idazkari izateko. Orain berriz 30 urterekin oraindik jendea ikasten ari da. Altzibar Garaiko baserrikoa zen Basiliren ama; Goienetxera ezkondu zenean hirugarren andrea izan zen etxean, gizonaren ama eta amona bizirik zeuden eta. Basilirekin, 9 anai-arreba izan ziren. Amak besoetakoa zuen iloba bat ere etxean hazi zuen, umearen ama hil zenean. Basiliren anaia gaztearekin titia banatuta hazi zuen iloba hori.

5. Pasio-hilketa Oñatin

- **Erref:** ONA-082/006
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:15:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Oñatiko plazako eskolan hasi zen Basili, "Señorita Puri" eta "Señorita Lola" maistrekin. Eskola denboran Oñatin izandako pasio-hilketa baten lekuko izan zen Basili.

6. Hilketaren zehaztasunak

- **Erref:** ONA-082/007
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:15:18. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Mutilak bi tiro eman zizkion neskari eta gero bere burua hil. Bedeinkatu gabeko lurrean ehortzi zuten hiltzailea. Neska zortzi egun geroago hil zen. Gaurko aurrerakuntzekin neska hura bizirik aterako zela uste du Basilik. Neska 18 urteko Arrola baserriko alaba zen. Hiltzailea, El Asturiano ezizenez, Oñatin apopilo zegoen kantabriar bat zen.</p>

7. Eskolak euskaraz

- **Erref:** ONA-082/008
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:19:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Gerra hasi aurretik, Berezaio auzoko eskolara pasatu zen. Eskola hartan, oso maisu ona izan zuen, Migel, fraide izateko bidean kaleratutakoa. 68 neska-mutikok ikasten zuten euskaraz elkarrekin gela batean. Gerrarekin bukatu ziren eskolok. Migel maisua espetxeratu egin zuten, eta gero Osintxura joan zen. Plazako eskolara joateko, zapatak erosi behar izaten zituzten, Berezaoko eskolara, ordea, abarkekin joatea bazuten.

8. Frankistek kaskamoztuak

- **Erref:** ONA-082/011

- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:22:44. **Bukatu:** 00:25:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Gerra ondorentxoan-edo, beste eskolarik ezean, al baitariaren etxean jaso zituen klase partikular batzuk. Al baitariaren alabek kaskamotz utzi eta al baitaria Oñatitik bidali zutenean bukatu zen hango eskola. Gogoan du geroago, Berezaoko eskolan, egunean lau bider abesten zutela Cara al Sol. Uribarri auzoko eskolara ez dira inoiz joan Goienetxetik.</p>

9. Gerran etxean gurasoekin bakarrik

- **Erref:** ONA-082/012
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:25:13. **Bukatu:** 00:27:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Anaia gaztea eta koinatua gerrara gorriekin joan ziren, eta bera bakarrik geratu zen etxean gurasoekin; orduan hasi zen bera maiorazko. Anaia-rik zaharrena Eibarrera eraman zuten militar beharretara. 14 urtetatik aurrera ez zen gehiago eskolara joan. Esnea eramaten zuen kalera eta erdaldunei esnea saltzen ikasi zuen erdara apur bat.

10. Idiekin elurra kentzen

- **Erref:** ONA-082/013
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:27:43. **Bukatu:** 00:30:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Gerra denboran lau ganadu buru eta idi pareak zuten etxean. Aitak goldean egiten zuen beste baserri batzuetan, eta negu partean Arantzazuko bidean elurra kentzen ibiltzen zen idiekin. Hiru-lau idi pare joaten ziren Arantzazutik kalera elurra kentzera. Behin idiak ia ito egin ziren lanean Arantzazun. Elurra kentzeko makina Arantzazun lotu eta beherakoan elurra kendu eta gero, makina gora eraman behar izaten zuten berriro.

11. Urteetan esne-saltzailea izan zen

- **Erref:** ONA-082/014
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:30:29. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Ez dute ez ardirik ez eta behorrik inoiz izan etxean, astoa aldiz bai, urte askotan eraman izan du esnea kalera. Portalekuko astoak lotzeko lekuan uzten zuen astoa. Esne-saltzaile bezala jardundako azkenengo urteetan 30 bat bezero zituen. Egunero 548 eskailera igo eta jaisten zituen esne banaketa lanetan.

12. Gaztainak bota eta sagarra sartu

- **Erref:** ONA-082/015
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:36:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Arrautzak eta babarrunak ere saltzen zituen. Babarrun asko eta oso ona egiten omen zen Goienetxan. Udazkenetik aurrera sagarrak ere saltzen zituen. 1934. urtean gaztainadiak bota, lurra landu eta Aldundiak ogerleko bat sagar-landarako emanda, 70 landara sartu zituzten. Garoen zuztarrak ere den-denak atera behar izan zituzten.

13. Sagarrak plazara

- **Erref:** ONA-082/016
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:36:26. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Landatu eta 10 urtetara hasi ziren sagarrondoak fruitua ematen. Gaur egun landatzen diren sagar batzuk urtebetera ematen dute alea, baina urte gutxi irauten dute landarok. Astoa sagarrez ondo kargatuta joaten zen plazara saltzen. Bere belaunaldikoek bata besteari laguntza emateko beti gertu zeuden. Oraingo jendea ez dela holakoa uste du Basilik.

14. Franco, Mola eta Chamorro

- **Erref:** ONA-082/017
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:40:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Bera esnea saltzen zebilenean, inork ez zuen esnearen kalitatea kontrolatzen. Chamorro Oñatiko medikuak esanda aldatu zuen Basilik umeendako esnearekiko betiko ohitura bat. Francok Mola hil zuenean, hau zihoan aireplanoaren pilotua Chamorro medikuaren anaia zen.

15. Esnari ura botatzen

- **Erref:** ONA-082/019
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:41:48. **Bukatu:** 00:44:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Gogoan du Basilik sasoi batean berari ere kontrolatzen ziotela esnea. Baina berak Lana lantegiaren sorrerarekin lotu zuen garai haietan, Lana izan behar omen zuen hemengo esnearen kudeatzaile eta. Txantxa batzuk egiten ditu esnea urarekin gehitzeaz. Etxeko txakur eta katuak ez dute nahi kaleko esnea edaterik.

16. Kupoak bete ezinda

- **Erref:** ONA-082/020
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:44:45. **Bukatu:** 00:47:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean garia eta patata kupoak eman behar izaten zituzten baserritarrek udaletxean. Urte txarretan arazoak izaten zituzten kupoak agindutakoa betetzeko. Goienetxeko lurrean arbi eta babarrun oso onak egiten ziren, ez ordea artoa eta garia.

17. Gidabaimena Arraten atera zuen

- **Erref:** ONA-082/021
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:47:35. **Bukatu:** 00:50:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Berea senar Agustin Kortabarriaren etxean, Eiziar Goikoan, askoz ere gari gehiago izaten zuten. Kotxea gidabaimena Arraten atera zuen, Oñatitik autoeskolako kotxea berak eramanda.

18. Mojak bizi izan ziren Goienetxen

- **Erref:** ONA-082/023
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:54:33. **Bukatu:** 00:57:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Bera umea zenean ez zegoen inongo aurrerakuntzarik. Gogoan du sua sukaldearen erdian zegoenean, eta alboan labesua ogia egiteko. Basiliren birraitona izan omen zen familiko lehena Goienetxen bizitzen. Aurretik Bidaurretako mojak bizi omen ziren bertan. Basiliren aitajaun-amandreak erosi zuten baserria 14.000 erreal mojei ordainduta. Artaldea izan omen zen Goienetxen mojen garaian, artegia utzi bai zutelako etxe ondoan. Nahiz eta txerritegi bezala erabili duten beti, oraindik ere "artegia" deitzen diote. Goienetxen bizi izan zen morroi bat Bidaurretan ehortzi zuten.

19. Baserrian obrak 1926. urtean

- **Erref:** ONA-082/024
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:57:44. **Bukatu:** 01:00:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Irategia egiteko aita eta ama bizkarka atera zuten lurra eraikin zahar batetik. 1926. urtean eraiki zioten etxeari beste solairu bat, ganadua eta ganbarak etxebizitzagatik aparte utzi zituelarik. Amandrearen anaia bik lagunduta erosi ahal izan zuten etxea. Bi anaiok Madrilera joan ziren gaztetan eta bertan aberastu ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com